

Smart City-en izenean edo termino honen aitzakiarekin, korporazio multinazionalak gure hiriek sortzen dituzten datuen jabe egiten ari dira. Gero eta gailu gehiago konektatzen ari gara Internet mundu zoro honetan. Nerbio sistemak bailitzan, hiri eta herrietan gero eta konexio eta sare gehiago ditugu.

Sare hauek jasotzen dituzten datuak nondik nora doaz? Sare eta datu hauek irekiak izango al dira? Herritarrok badugu aukerarik alternatiba irekiak sortzeko? Zein teknologia erabiliko dugu? Galdera hauetan sakontzen hasteko, Hirikilabsen SummerLab'17 lantegi kooperatiboan parte hartuko dugu.

Hiri inteligenteak sortzeko, LoRategi(sare)ak eraikitzen izena duen lantegian honako hauek aztertuko ditugu.



SUMMER LAB

Hirikilabs

Uztaila / Julio / July

12 / 13 / 14 / 15

Tabakalera /
Uliako Lore Baratzak

etziom
ETORKIZUNA
IDAZTEN

- **LoRa** teknologiaren azalpena: Zertarako dago diseinatua? zeintzuk dira teknologia honen mugak?
- Merkatuan dagoen **hardware eskaintza**: Garatu nahi den prototipoaren arabera, soluzio bat edo beste aukeratu behar den aztertuko dugu.
- Mezuak bidali eta jasotzeko praktika: Garapenerako lehen pausoak.
- Sentsoreen bitartez datu errealekin egindako praktika.
- Datu bilketarako IoT plataformak: Plataforma itxiak Vs irekiak.

Lekua: Hirikilabs, Tabakalera.

Egunak: Uztailaren 13 eta 14.

Ordua: 11:00etatik 14:00etara.

Izena emateko: [Tabakalera webgunean](#).

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

